

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, GETXOKO UDALAREN 2011-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Getxoko Udalaren 2011ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak Udala, bere toki erakunde autonomoak eta sozietate publikoa barne hartzen ditu; txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, Epaitegiak udal jarduerari buruzko iritzi orokorra plazaratu du eta ekonomia-finantza jarduera arautzen duen araudia zuzentasunez bete duela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak zenbaitetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: zerbitzu kontratu bat administrazioko kontratu berezi modura izapidetzea, ezarritako gehiengo iraupen epea gaindituz; obra kontratu bat publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez izapidetzea, behar bezala justifikatu gabe; hainbat obra kontratutan aldaketak izapidetzea, kasuren batean jatorrizko aurrekontuaren gainean % 86 arteko igoera eragin dutenak; horrek hasierako kontratuaren bolumen ekonomikoa desitxuratzea dakar; obra kontratazio baten espedientearen deialdia BOEn eta DOUEn ez argitaratu izana; eta kontratu txiki modura edo publikotasunik gabeko prozedura negoziatu modura izapidetu dira publikotasundun prozedura negoziatu bidez edo prozedura ireki bidez izapidetu behar ziratekeen gastuak.

Erakunde autonomo eta sozietate publikoei dagokienez, legea betetzeari eta urteko kontuei buruz HKEEk duen iritzia aldekoa da, nahiz ez-betetzereen bat eta salbuespenak azpimarratu diren, batik bat langileen eremuan, txostenean jaso direnak.

Udalaren, toki erakunde autonomoen eta sozietate publikoen Kontu Orokorrari eta kontu bateratuei dagokienez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiari dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Udalaren Diruzaintza Geldikina 0,5 milioi euroan murriztu dutenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, likidazio, langileria, kontratazio, diru-laguntza eta beste hainbat arlotan.

Amaitzeko, Udalaren finantza egoerari dagokionez, 2009-2011 aldian sarrera eta gastuen zifra nagusien bilakaerak aurrezki garbiak eboluzio positiboa izatea eragin duela adierazi da, batik bat sarrera arruntei eutsi zaielako eta funtzionamendu gastuek behera egin dutelako; horrek 2011ko ekitaldian kapital eragiketarako finantzatzeko bide eman du.